

Anaitasunaren 25 urteak gogoratzuz

Bazkari eta giro ederrarekin eman zioten bukaera joan zen igande, hilak 20, Aritzmendi frontoian bildu ziren 450 ermuarrek ikastolak bere XXV. urteurrena ospatzeko antolatu duen ekintza multzo zabalari.



Ume mordoren atzean ikastolako ikasleak izandako txistulariek eta 8. mailako zangoluzeez kalejira ikusgarriarekin ospatu zuten martxoaren 4ko arratsaldean lehen ekintza.


Asteburua oparoa izan zen, larunbatean Aritzmendi frontoiak bere jantzirik ederrenak jantzi baitzuten Oskorri taldearekin ongi pasazteko han bildu ziren 800 haur

gazte eta gurasoak. Bezperan kalejira eguzkia nagusi izan bazen ere, ez zen gauza beragertatu kirol ekintzez betetako lehenengo aste-buru horretan; baina ongi pasatzeko gogo dagoenean, euriak ere ezin du traba handirik jarri. Honela ulertu zuten behintzat San Pelaixon bildu ziren txirrindulariek, eta igande goizean bai eskalatzen bai futbito edo eskubaloian plazan ari izan ziren guztiek.

Egia esanda, badirudi euriak hoztu nahi izan dituela aretoetatik kanpo bete diren ekintzak; hala ere, ez dirudi holakorik lortu duenik, indarrak batzen direnean eta ondo pasatzeko gogo dagoenean oztopo guztiak gainditzen baitira.

Antolatzaileen asmoa hau xe izan da, ermuar euskaltzale guztiak inplikatzeko ospakizun hauetan, eta lagundu nahi izan duenak bere aukera izan du: Honela, ikusi ditugu Artarrai taldeko mendizaleak edo bultzadaxo bat behar duten pilotariak, koruak, dantza taldeak, emakumeak, rockeroak, harrijasotzaileak, magoak...

Argi dago euskararen egarri den gure herri honek, 17 egun hauetan egin diren bezelako ekintza asko behar dituela, baina ez gaitzen horren zai egon euskaltzaileen indarrak batzeko.



Ez ditugu hitz hauek bukatu nahi ikastolak argitaratu duen liburuxka aipatu barik, bertan 25 urte hauetan jasandako une latzak eta ezitutsuak jasotzen dira, irakurtzeko atseginak eta errazak, 56 orrialde-tan. Horra hor euskeraz liburu bat irakurtzeko aukera!

Gaizka Areitioaurtena

EKINTZA



ESKOLAKO MATERIALEA.....

FOTOKOPIAK.....

FAX PUBLIKOA.....

Goienkale, z/g

Tlf. 17 20 08

optika
itze

Probaleku, 7

Tfnoa. 17 46 71

MENDIOLA JATETXEA



Erdikokale, 19, Tlf.: 943-172243
48260 ERMUA

Kopi - Fax

Kopistegia, Papertegia

Torrekua, z/g. 48260 ERMUA
Tfnoa. eta Faxe: (943) 17 42 89



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen**

bihotzean




SEXTO CENTENARIO, n.º 7
Teléfono: 17 64 77
ERMUA

**DIETETIKA
ZENTROA**

HERBODIETETIKA
SENDABELARRAK

• KOSMETIKA NATURALA
• ERREGIMENEN ELIKAGAIK



Izelaieta, 10 eta
Merkatu Plazan
Tfnoak: 17 02 13
(Etxekoa) 17 01 52